

# Erdi Aroko arkeologia Hego Euskal Euskal Herrian: balantze kritikoa

**Agustin Azkarate Garai-Olaun**

*Arkeologiako katedraduna, Euskal Herriko Unibertsitatea*

**Iñaki García Camino**

*Arkeologi Museoko zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundia*

## Laburpena

Euskal Herriko Erdi Aroko Arkeologiak hiru hamarkada baino gehixeago ditu. Beste tradizio arkeologiko luzeagoekin alderatuz oso denbora gutxi, baino nahikoa, eduki eta eztabaida ugariko historiografia sortzeko. Artikulu hau bi zatitan banatzen da funtsean: lehenengoan, Erdi Aroko euskal arkeologiaren ibilbide historiografikoaren sintesia egiten da, 80ko hamarkadatik gaur egun arte. Bigarrenean, gaur egungo ikerketa-ildo nagusiak eta eztabaida nagusiak biltzen dira. Artikuluaren amaieran, gaiaren, metodologiaren eta axiologiaren inguruko gogoeta batzuk egiten dira, gure diziplinaren etorkizunari buruz gogoeta egiteko.

**Gako-hitzak:** Erdi Aroko arkeologia. Euskal Herria. Historiografia. Ikerketa-ildoak. Eztabaidak. Etorkizuna.

*Jasotze data: 2020ko irailaren 21ean  
Onartze data: 2020ko irailaren 25ean*

## Resumen

La Arqueología medieval del País Vasco tiene poco más de tres décadas de existencia. Muy poco tiempo comparado con otras tradiciones arqueológicas más longevas, pero suficiente para haber generado una historiografía muy rica en contenidos y debates. Este artículo se divide básicamente en dos partes: en la primera se hace una síntesis del itinerario historiográfico que ha seguido la arqueología medieval vasca, desde los 80 hasta la actualidad. En la segunda se recogen las principales líneas de investigación y los debates más significativos actualmente en curso. El artículo termina con algunas consideraciones de naturaleza temática, metodológica y axiológica, con las que se quiere reflexionar sobre el futuro de nuestra disciplina.

**Palabras clave:** Arqueología medieval. País Vasco. Historiografía. Líneas de investigación. Debates. Futuro.

**Abstract**

Medieval Archaeology in the Basque Country has existed for just over three decades. Extraordinarily little time compared to other more longstanding archaeological traditions, but enough to have generated a wealth of historiography steeped in content and debates. This article is basically divided into two parts: The first is a synthesis of the historiographic journey of Basque medieval archaeology from the 1980s to the present day. The second covers the main lines of research and the most significant on-going discussions. The article ends with some thematic, methodological and axiological considerations, with which we would like to reflect on the future of our field of study.

**Keywords:** Medieval archaeology. Basque Country. Historiography. Lines of research. Discussions. Future.

**Résumé**

L'archéologie médiévale du Pays basque n'existe que depuis un peu plus de 3 décennies. Très peu de temps par rapport à d'autres traditions archéologiques plus anciennes, mais suffisamment pour avoir permis de créer une historiographie très riche en termes de contenus et de débats. Cet article est divisé fondamentalement en deux parties : dans la première est faite une synthèse de l'itinéraire historiographique parcouru par l'archéologie médiévale basque, des années 80 à ce jour. Dans la seconde, sont repris les principales lignes de recherche et les débats les plus significatifs en cours à l'heure actuelle. L'article se termine par quelques considérations de nature thématique, méthodologique et axiologique, qui visent à réfléchir sur l'avenir de notre discipline.

**Mots Clés :** Archéologie médiévale. Pays basque. Historiographie. Lignes de recherche. Débats. Futur.

**1. SARRERA**

Agian arkeologia izenak antzinako gauzei erreferentzia esplizitua egiten dielako, egia esan, denbora asko behar izan da diziplina honek muga kronologikorik ez duela onartzeko. Europako historiografian eboluzionismoak zuen pisuak zehaztu zuen, XIX. mende hasieratik, konpartimentu kronologikotan antolatutako iragana. Denboraren zatiketa horretan, arkeologiak garairik antzinakoen ardura zuen. Pentsatzen zen –eta bada jendea oraindik horrela pentsatzen duena–, garai berriagoetarako badela nahikoa informazio idatzi, sarritan baliabide handiak behar dituen diziplina baten beharra izateko.

Aurreko mendeko 70eko hamarkadaren amaieran ez zegoen gure inguruan Erdi Aroaz arduratzen zen arkeologiarik, eta gure diziplinaren muga kronologikoak zabaltzea defendatzen genuenok, hainbat oztopo gainditu behar izan genituen (batik bat esparru akademikoan), ikerketa alorrean tarte bat izateko. Gauzak asko aldatu dira ordea: gaur egun arkeologiaren adar garrantzitsuenetako bat XX. mendeari buruz aritzen dena da. Azken urteetan diziplina arkeologikoa izaten ari den eraldaketa kontzeptual sakonean, jada bada, arrazoiz gainera, denbora anitzari helduko dion arkeologia aldarrikatzen duenik, ikuspegi ez-linealak jarraituz (Hamilakis, 2011; González Ruibal, 2012, 2013). Ziur asko, etorkizun hurbilean, hau bezalako artikuluek -modernitatearen denbora linealaren arabera sortutakok- leku egingo diete gaiak denboraz haraindiko ikuspuntuetatik aztertuko dituzten beste mota bateko ikuspegi.

Gogoeta horren ondoren, ikus dezagun nola metodo arkeologikoaren erabilerak Euskal Herriaren historiaren ezagutza sakonki aldatzea lortu duen, erromatarren inpeioaren amaieratik Errenazimenduarekin hasitako modernitateraino doazen mila urteetan

## 2. OHAR HISTORIOGRAFIKO LABUR BATZUK

### 2.1. Hasiera

Erdi Aroko arkeologia, esan dugunez, nahiko berria da eta hamarkada batzuk itxaron behar izan ditu gaur egungo diziplina indartsu eta oparoa bihurtu arte. Hego Euskal Herriari dagokionez, historiaurreko ikerlari ospetsuek egin zituzten lehen urratsak, zenbait arrazoirengatik Erdi Aroko testuinguru estratigrafikoei aurre egin behar izan zietenean (J.M. Barandiaran; I. Barandiaran, J.M. Apellaniz edo A. Llanos). Hala ere, Erdi Aroko arkeologiarekin izan zuten harremana oso puntuala izan zen, eta ez zuen eraginik utzi diziplinaren egoeran.

**2.2. 80ko hamarkadara** arte itxaron behar izan zen Erdi Aroari buruzko ikerketa arkeologikoak indarrez garatzen hasteko, baldintza akademiko eta politiko batzuen eraginez.

**2.2.1.** Ilkuspegi akademikotik, nahitaez, José Angel García de Cortázar-en ekarpenak aipatu behar dira. Mediebalista ospetsu honek, iparraldeko gizarteetako feudalizazioa ikertzen zebilela, galdera berriak egin zituen giza establezimenduen itxurari buruz, ekoizpen-espazioei eta nekazarien lanari buruz, eta, azken batean, paisaia berrien eraketari buruz (García de Cortázar *et alii* 1979, 1985). Galdera eraginkor hauen eskutik sartu zen arkeologia mediebalismoaren ikerketetan, ordura arte idatzizko erregistroak soilik erabiliz egiten zen ikerketari alternatiba berri eta indartsu bat eskainiz.

Laster jarri ziren martxan zenbait aztarnategitako indusketa arkeologikoak (nekropoliak, gotorlekuak, herrixkak, kobak, meatze eta/edo metalgintzako kokalekuak), eta lehen emaitzak 1985ean aurkeztu ziren Huescan egindako Erdi Aroko Arkeologiari buruzko Espainiako I. Kongresuan (Urteaga, Azkarate, García Camino, 1986). Lehen esperientzia haiek, garai hartako interpretazio nagusiei jarraituz, Euskal Herri atzerakoi bat irudikatzen zuten, Europako beste eskualde batzuen prozesu historikoei poliki-poliki jarraitzen ziona. “Asimilazioa-erresistentzia” binomioaren bidez -urte haietan maiz erabiltzen zena- Garcia de Cortazarrek “hegoaldeko akulturazio” gisa definitutako prozesu baten aurrerapenak eta atzerapenak azaltzen saiatu zen.

**2.2.2.** EAEk eta NFEk ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren arloko eskumenaren transferentzia jaso ostean, garrantzi handiko aldaketa batzuk izan ziren kultura-ondarearen kontzeptualizazioan, balioespenean eta esku-hartzeko aukeretan. Lehenengo ondorioa “karta arkeologiko” tradizionalen gainditze kronologikoa izan zen, ordukoak ez baitziren erromatar garaiaz haraindi joaten. Ondorioz, ordura arte ahaztua eta ikusezin zegoen kultura-ondare aberatsaren “aurkikuntza” eman zen.

**2.3. 90eko hamarkada.** Aipatu berri dugun esperientziak bi ahultasun garrantzitsu jarri zituen agerian: alde batetik, datu arkeologikoek iturri idatzietatik zetozen interpretazioekiko zuten mendekotasuna; eta bestetik, Erdi Aroko arkeologiaren ezintasuna egoera hori gainditzeko, interpretazio-esparru propioen sorrera lagundu zezakeen tresna eraginkorrik ez zegoelako. 90eko hamarkadan nabarmen zuzendu ziren urritasun horiek.

**2.3.1.** Ekarpen metodologiko berriak.

Ekarpen argienak Europako arkeologian hamarkada horretan ematen ari ziren berrikuntza metodologikoekin batera heldu zitzaizkigun.

- Aurrerakada horiek eragina izan zuten indusketa-estrategietan (eremu zabaleko edo *open area* indusketak indartuz), lan-prozeduretan (unitate estratigrafikoen bidez induskatuz, lodiera jakineko geruzen sistema tradizionalaren orde) eta erregistro-sistemetan (indusketa-egunkarien orde, fitxa analitikoak eta *matrix Harris* edo diagrama estratigrafikoak erabiliz). Erdi Aroko arkeologia izan zen lehena aurrerapen horiek Euskal Herrian erabiltzen, garai goiztiarretan gainera (Urteaga 1989; AAVV 1992).
- Ez zuen garrantzi gutxiago izan beste mito tradizional baten erortzeak, hain zuzen ere, arkeologia 0 kotatik behera bakarrik lan egiten duen diziplina zela zioena. Arkitekturaren arkeologiaren sorrerak zapuztu egin zituen ikuspuntu tradizional

horiek, eta erakutsi zuen metodo estratigrafikoak bazuela gaitasuna eraikuntza-komplexutasuna diakronikoki ulertu eta ordenatzeko, bai eraikin eta hirugune historikoetan, bai paisaia estratuaniztunetan (Mesanza, García-Gómez, Azkarate 2020). Erdi Aroko euskal arkeologia aitzindaria izan zen esparru horretan ere. Eta, lekuko gisa, Gasteizko “katedral zaharrean” gauzatu zen proiektua dugu, Europan zaharberritzearen arloan egindako esperientzia konplexuenetako bat kontsideratua izan dena. Arkitekturaren arkeologiak garrantzi handia izan zuen esperientzia horretan (Azkarate 1996, 2001).

- Beste pausu kualitatibo handi bat aztarnategiaren eskala lurraldera handitzea izan zen. Garapen hori, euskal arkeologiari dagokionez, erregistro arkeologikoa populaketa moduan irakurtzean hasi zen; horri esker Momoiitioko (Garai, Bizkaia) Erdi Aroko lursail-egitura aztertu eta identifikatu ahal izan zen, Euskal Herriko Erdi Aroko arkeologiak lortutako heldutasun-maila islatzen duen doktore-tesi batean (García Camino, 2002).

### 2.3.2. Aldaietaren aurkikuntza.

Baina, aurrerapen metodologikoez gain, hamarkada hori nabarmendu zen Euskal Herriaren historian garrantzi eta oihartzun handia izan duen aztarnategi baten ikerketa arkeologikoa egin zelako. Aldaietako (Langara Ganboa, Araba) nekropoliari buruz ari gara. Nekropoli horren indusketak VI. mende erdialdetik VIII. mende hasiera bitarteko erregistro arkeologikoa jarri zuen agerian. Antzinate Berantiarren erregistroari buruzko ikerkuntza arkeologikoa gure esparru geografikora ohitua zegoenarekin adierazuz berritasun garrantzitsuak ekarri zituen (Azkarate 1999). Aldaietak, nolabait, hankaz gora jarri zuen ordura arteko guztia.

Erregistro hartatik deigarriena ez zen izan “jantzita egindako ehorketak” aurkitzea -ohikoak garai bereko Iberiar penintsulako beste testuinguru batzuetan-, baizik eta penintsulako lurraldeetan arrotzak ziren, eta aldiz, kontinenteko hileta-ohituretan ohikoagoak ziren errituak egiaztatzea. Lehenengo aurkikuntza hark beste dimentsio bat hartu zuen berehala, antzeko kronologia eta ezaugarriak zituzten beste nekropoli batzuen aurkikuntzarekin -besteak beste, Buzaga (Elortz, Nafarroa), San Pelayo (Dulantzi, Araba) eta Finaga (Basauri, Bizkaia)- eta aspalditik ezagutzen genituen beste batzuen berrinterpretapenarekin (Azkarate 1993, 1999). Azken urteotan, erregistroa gehiago aberastu da “Kondestablearen Etxean” (Iruñea, Nafarroa) (Faro, Unzu 2007), Santimamiñen (Sánchez, Vallo, Unzueta 2008) eta Dulantziko San Martinen (Loza, Niso 2016) egindako indusketekin.

Aurkikuntza guzti hauek -Antzinatearen eta Erdi Aroaren arteko trantsizio aldiari dagokionez- mugarri bat suposatu dute Euskal Herriaren historian. Material arkeologiko horiek erakutsi dute Aldaieta ez dela datu isolatu bat, baizik eta oharkabean

igarotako fenomeno historiko baten testigantza garrantzitsua: geroago ikusiko dugunez, VI eta VII. mendeetako iturri idatzietan ageri diren baskoi historikoen kultura material eta sinbolikoa irudikatzen duena (Azkarate, García Camino 2013).

**2.4. Milurteko berria.** Aurreko mendearen amaierarako, Erdi Aroko arkeologiak heldutasun maila handia lortua zuen. Xehetasun hau gogora ekarri beharra dago, batzuek, XXI. mendeko lehenengo urteetan, ustez berritzaileak ziren interpretazioak eta proposamenak aurkeztu dituztelako, aurreko hamarkadetan egindako ahaleginak gutxietsiz. Ikus dezagun, labur-labur, Erdi Aroko arkeologiak mende honetan eza-gutu duen bilakaera.

#### 2.4.1. Aurrerapen metodologikoak.

Lehenik eta behin, aurrerapen metodologikoetan jarriko dugu arreta. Arestian aipatu dugun moduan, Erdi Aroko arkeologiak lehenengo urteetan izan zuen ga-bezia nagusienetako bat, interpretazio propioak sortzeko tresnarik ez izatea izan zen. Adibidea jarriko dugu: hainbat menderi (VII-XII) dagozkion zeramikazko materialekin hurbilketa kronotipologiko fidagarriak egiteko zailtasunek, erroetik ebakitzen zuten interpretaziorako proposamen sendo oro. Horregatik, adierazle kronologikoak egiteak lehenetasun handiena hartu zuen berehala. Eta testuinguru horretan balioetsi behar da J. L. Solaunen doktore-tesia garrantzia (Solaun 2005). Ikerketa horri esker izugarritzko urratsa eman zen zeramiken ikerketan, protokolo zehatzak finkatu zirelako ondoko pausu hauek jarraituz: a) ikertu behar diren zeramiken jatorrizko testuinguru estratigrafikoen analisi kritikoa; b) lupa binokular baten bidez oreen azterketa eta forma funtzionalen identifikazioa, horrela materialaren lehenengo sailkapen bat eginez; c) sailkapen hori analitikoki egiaztatzea analisi petrografikoak, X izpienak eta geokimikoak erabiliz eta d) zeramiken produkzioen karakterizatzeko orokorra.

S. Escribanok ondoren egindako doktore-tesia ere ikerketa-testuinguru berean garatu zen, eta jarraitutasun kronologiko eta kontzeptuala eman zion euskal zeramika historikoen ikerketari. Horrela, XIV. mendetik XVII.-erako kronologia zabaldu egin zuen eta aurretiazko azterketetan garatutako alderdi analitiko batzuk finkatu zituen. Batez ere, kuantifikazio-teknikei, erregistro arkeologikoaren eraketa-prozesuei eta datu arkeometrikoen integrazioari zegozkionak (Escribano-Ruiz 2014).

Agian, aurrerapen esanguratsuenak arkeometriaren esparruan gertatu dira, ikerketa arkeologikoetan analisi fisiko-kimikoen teknikak erabiltzeari dagokionez oro har (zeraiketarako ikus Grassi, Quirós 2018). Bereziki analisi isotopikoek (paleoingurumenari, elikadura-ereduei, populazioen mugikortasunari eta migrazio-ohiturei buruzko informazioa emateko duten gaitasun handiarekin), garapen aparta lortu dute (Quirós, Ricci, Lubritto 2012). Horrenbestekoa izan da aurrerapen hori,

ezen ikertzeko moduan ere benetako iraultza sortu duela (artiluluaren amaieran aipatuko ditugun arrisku batzuekin).

#### 2.4.2. Arkeologia publikoa.

Ezin ditugu ahaztu arkeologia publikoaren esparruan egin diren ekarpenak. Dударik gabe, arlo honetako esperientziarik nabarmenena eta aitzindariena Gasteizko “katedral zaharrarena” izan zen. Zaharberritu egin behar zela-eta bertan gauzatutako esku-hartze konplexuaren testuinguruan sortu zen “Obretan eta irekia/ Abierto por obras/Open for Works” eslogana: proiektuaren arduradunek asmatuta, ikerketa zientifikoaren erantzukizun sozialaren aldeko deklarazioa bilakatu zen (Azkarate 1996, 2001). 2000ko ekainean bisita-programa abiarazi zen, herritarrek zaharberritze-prozesuan zegoen katedral bat zehatz-mehatz zeharkatu ahal izan zezaten; bitartean azalpenak jasotzen zituzten bertako historiari, abian zegoen zaharberritze-prozesuari, helburuei, lortutako emaitzei eta finantziazio-iturriei buruz. *Open for Works* lelopean, dagoeneko (2020) 1.800.000 pertsona igaro dira katedral-eraikinetik eta haren ingurunetik. Inork ez zuen sumatu ere egin duela ia bi hamarkada, denboraren joanarekin, eslogan eta esperientzia haiek ezohiko eragina lortuko zutenik, bai Estatu mailan, bai nazioartean; inspirazio-iturri izan zelarik hemen, baina baita Espainiako, Europako, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako beste proiektu batzuentzat ere.

#### 2.4.3. Oinarri arkeologikoko interpretazio-ereduak.

Azkenik, Erdi Aroko arkeologian eragina handia izan duen beste hirugarren zertzelada bat aipatuko dugu: batez ere mundu anglosaxoitik datozen interpretazio-ereduei buru ari gara. Azken urte hauetan, hain zuzen ere, Penintsularen iparraldeko Goi Erdi Aroko arkeologiak interpretaziorako proposamen berriak ezagutu ditu. Euskal Herrian J.A. Quirós izan da prozesu horren bultzatzaile nagusia, zenbait egileren –C. Wickham bereziki (2005, 2008)– ekarpen teorikoetatik sortutako interpretazio-ereduetan oinarrituta.

### 3. EZTABAIDA NAGUSIAK ETA IKERKETA-LERROAK

Espero zitekeen azken interpretazio horietatik eztabaida garrantzitsuen sorrera eta, ikusiko dugunez, halaxe gertatu da. Ikuspuntuei buruzko balio-judiziorik egin gabe, atal honetan, hurrengo urteetan ikerkuntzaren etorkizuna baldintzatuko duen eztabaidaren lerro nagusiak laburbilduko ditugu.

### 3.1. Antzinate Berantiarraren eta Goi Erdi Aroaren arteko trantsizioa.

#### 3.1.1. Antzinate Berantiarra (K.o. VI.-VII. mendeak).

Bi dira garai honetaz plazaratu diren interpretazio nagusiak. Lehena C. Wickhamen proposamenetan inspiratutako eredian oinarritzen da, eta oinarritzko puntuak (gure esparru geografikorako *sensu lato*) hauek izango lirateke:

*Civitas*ean oinarritutako erromatar garaiko lurralde-antolaketaren sistema desegin zenean, Euskal Herriko hegoaldean -Ebro bailaran- botere gune berriak sortu ziren *castra* eta elizen inguruan, herrixka bildu eta egonkorrak antolatzeke gauza izango den aristokrazia indartsu baten presentzia frogatuz. Iparralderago, ordea –gaurko Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako erdi eta iparraldean- lurraldearen okupazioa, etxalde edo nekazaritza eta abeltzaintzako kokagune erdi sakabanatuen bidez egin zen. Tamaina txikikoak, gutxi irauten duten materialekin eraikiak, lurraldean finkatutako botere egonkorren ahulezia adierazten dute. Eliteen gabezia ukazina da. Aitzitik, badirudi lurraldea kudeatzeko eta ustiatzeko ekimena nekazarien esku zegoela oro har. Aipatu ditugun “Aldaieta facieseko” nekropoliak ez lirateke ohiz kanpoko ezer, *peasant mode* edo nekazarien produkzio-moduari dagozkion testigantzak baino ez. “Hilerrri horiek nekazal herrixketakoak badira bakarrik dute zentzua” (Quirós 2010: 240. or.), kontuan izanik “Aldaietakoaren gisako ehorzketen kontzentrazioak, Penintsulako beste herrixka-testuinguruetan nekazarien herrixketakoak direla” (Quirós *et alii* 2010: 488. or.). Beraz, eta batez ere gaurko Euskal Autonomia Erkidegorako eta Nafarroako erdi eta iparralderako, hauek lirateke ezaugarri esanguratsuenak: ikusezintasun aristokratikoa, sinpletasun ekonomikoa, inboluzio teknologikoa eta nekazal etxalde eta herrixken gailentzea. Azken finean, nekazarien ekoizpen-moduaren ezaugarri propioak direnak.

Hipotesia erakargarria da, dudarik gabe, eta eztabaida interesgarria indarberritzeko izan duen balio ukazina aitortu behar zaio. Baina lan hau sinatzen dugunok ikuspuntu nahiko ezberdina daukagu (Azkarate, García Camino 2011, 2013), neurri batean bat datorrena J.J. Larreak (2016) eta M. Pozok (2016, 2018) berriki egin dituzten ekarpenekin. Gure iritziz, K.o. VI. eta VII. mendeetako erregistro arkeologikoak, gaur egungo Bizkaia, Araba eta Nafarroako lurraldeetan, errealitate askoz ere konplexuagoa, dinamikoagoa eta sozialki estratifikatuagoa erakusten du. Tokiko eliteen presentzia ukazina da eta honen aldeko argudioak pisu handikoak dira gure ustez: elite hauek irismen handiko merkataritza-zirkuituetara heltzeko gaitasuna dute (urrutiko lekuetatik anbar-kontuak inportatzeko), hargin espezializatuak kontratatzeke gai dira (Bizkaiko hilarri ikusgarriak egiteko), ola-establezimenduak mantentzen dituzte (Arabako Pagoetan bezala), idazten dakite (Trebiñuko haitzulo artifizialeetan ikus daitekeen bezala), heriotzaren unean bere gizarte-maila eta *statu-*



sa harrokeriaz erakusteko ez dute lotsarik. Duela urte batzuk idatzi genuen bezala (Azkarate 2012), nekazari soilak direla defendatzeko, lehenago azaldu beharko litzateke zer motatako nekazariak egiten dituzte ehorzketak 11 pertsona arteko “panteoietan”, 15 arma eta ostilamendu ugariz lagunduta; zer egiten duten nekazari batzuen ehorzketetan Suizako Basel-Bernerring-eko “tomb de chef” batean berreskuratu zen moduko brontzezko ontziak; edo zer egiten duten, besteak beste, beirazko edalontziak, anbarezko zintzilikarioak, urrezko eta zilarrezko eraztunak.

### 3.1.2. Goi Erdi Aroa.

Ikusi berri dugun lehen ereduaren arabera, VIII. mendetik aurrera Ebro bailaran indartsu ziren botere aristokratikoak ahulduz joango dira eta, aldiz, iparralderago agertuko dira orain aristokrazia berriak (aurreko mendeetan ez zeudenak), lurraldea ustiatzeko eta okupatzeko sistema hierarkizatuak ezarriko dituztenak, gazteluen bidez (Ocio) gotorlekuen bidez (Berbeio-Barrio, San Zadornil, Lastra edo Trebiñu) eta, batez, ere, herrixka sare trinko batez bidez. Iparraldeko eremu hauetarako, laburbilduz, VI. eta VII. mendeetako desegituratze maila altua ez bezala, VIII. mendea elite agintarien eraketan funtsezkoa unea dela esan daiteke, lurraldeari dagokionez indartsuak eta finkatuak eta herrixka-sarearen eraketan erabakigarriak.

Botere berrien sorrera defendatzen dutenen aurrean, lan honen sinatzaileok pentsatzen dugu erregistro arkeologikoak ez duela ikuspuntu hau bermatzen. Alderantziz esango genuke, VI. eta VII. mendeetan lurralde hauen bereizgarri ziren botere-adierazleak (hilarriak, armak, ostilamenduak) nabarmen murrizten dira; ez da erregistratzen prestigiozko objektuen inportaziorik, nekropoliak sinplifikatu egiten dira, eliza gehienak eraikin oso xumeak dira... Azken finean, ez dago nahikoa argudiorik ziurtatzeko -ez behintzat egiten den irmotasunarekin- VIII. mendean, kokagune egonkor eta bilduak bultzatzeko, ekoizpena antolatu eta paisaia aldatzeko, eta proposatzen den herrixka-sarea eraikitzeke adinako gaitasuna duten lurralde-botereak sortu zirela.

Aldiz, aldaketa ikusten da hilerrietan; kristau erritualeko ehorzketak dira nagusi orain, baina praktika ugariekin batera, bai errituetan (ikatzen agerpena, errituzko suak, profilaktikoen ugaritasuna...), bai hilobi-motetan, baita hilerri beraren antolaketan ere. Honek pentsarazten du tokiko komunitatearen edo familia-talde baten mende zeudela, lurraldeetako eliteekin eta goi mailako elizgizonekin loturarik gabe. Horrela ikusten da, adibidez, Bizkaiko Momoitio, Mendraka, Memaia, Ranes, Zedelika eta Iturretan (García Camino, 2002), Gipuzkoako Getaria, Zarautz eta Donostiako Santa Teresan (Sarasola, 2010) eta Nafarroako Ar baitza, Beriain, Gomazin eta Saratsuan (Ramos 2011; García Camino 2013). Horrek ez du esan nahi

gizarte-ezberdintasunen zantzurik ez dagoenez, baina urriagoak dira (harri-bloke batean landutako hilobiak, Argiñetakoak adibide gisa) eta apalagoak (Durangaldean sakabanatutako inskripzio xumeko estelek islatzen duten moduan) (Azkarate, García Camino 1996).

Bestalde, elizak harrizko eraikin apalak ziren, eta oinplano laukizuzena, bolumen txikia eta espazioaren banaketa xumea zuten; beraz, oro har, eraikuntza-ziklo oso sinplifikatu baten testigantzak ziren (García Camino *et alii* 1987; García Camino 2002; Sánchez Zufiaurre 2007). Horregatik pentsa daiteke eraikuntza-ekimen gehienak herrixka-komunitateenak beraienak izan zirela, neurri handiagoko eraikuntzetan inbertitzeko moduko ekoizpen-soberakinik ez zutenak, baina eliza erreferentziatza ikusi zutenak, ez bakarrik espiritualki, baita ekonomikoki eta komunitatearen ondarea kohesionatzeko ere.

Hala ere orokortu ere ez da egin behar. Kasu batzuetan, hainbat elizen ugazabek konplexutasun handiagoko lanak sustatu zituzten, teknikoki konplexuak ziren eraikuntza-irtenbideak ezarriz (petxina gaineko gangak, adibidez) edo botereari lotutako eraikin handietako forma arkitektonikoak erreproduzitzeko gai ziren langile gaituak erabiliz. Errenta handiko pertsonaiek bakarrik ordaindu ahal izan zituzten lanak. Kasu horietako bat da Euskal Herriko elizarik zaharrenetakoa den Tobillaseko San Romanena (Azkarate 1995). 822. urtean sortu zuen Avito abadeak, lurralde zabal batean sakabanatuta labore-lurrak, abelburuak, gatz-larrainak, elizak, errotak eta ondasun higiezinak zituen ugazabak. Harlangaitzez eta ferra-arku formako baoz eraikitako beste tenplu xumeago batzuk (besteak beste, Arabako Urbina Basabeko San Pedro, Samanoko Andre Maria eta Lastrako kastroak) tokiko jaunena zirela esan izan da; baita ere X. mendean datatutako Bizkaiko eliza txikiak (Lamikiz, Goiuria, Amatsa, Bermejillo...), hareharrizko bloke monolitikoetan landutako baoak dituztenak, arkitektura prerromanikokoak imitatuz.

XII. mendea baino lehenagoko komitenteen aniztasun horrek zera erakusten du: tenplu kopuru handia izan arren, parrokia-sarea ez zegoela eratuta, eta horrek islatuko luke, lurralde-mailako eliz-agintarien ahultasuna eta erregeek zein apezpikuek eliz-mapa antolatzen izandako porrota. Ikusiko dugunez, XI. mendearen amaiera arte itxaron behar da erregeek eta gotzainek, herrixken barruan sortu ziren bostere berrien laguntzarekin, parrokia-sarea gauzatu arte.

Eliza hauetan eta beraiei dagozkien herrixketan ikerketa eta indusketa sakonak egin ari dira, batez ere Araban (Zornostegi, Zaballa, Aistra, Bagoeta, Gasteiz), baita Bizkaian (Gorliz, Argiñeta), Gipuzkoan (Zarautz) eta Nafarroan ere (Apardués, Lizarra). Indusketa horiek informazio garrantzitsua ematen ari dira etxe-unitate konplexuz osatutako populazio-gune horiei buruz. Etxe-unitate horiek zurezko

hainbat eraikinez eratuta zeuden (batzuetan erdi hondeatuak, beste batzuetan harrizko zokaloen gainean eta beste batzuetan lurraren arrasean), funtzio ezberdinak betetzen zituzten (eskortak, tailerrak, dolareak, ukuiluak, etxebizitzak) eta haien artean ortuak, larrainak eta silo-sailak irekitzen ziren (Azkarate, Solaun 2013; Azkarate *et alii* 2011; Quirós 2012; Ramos 2011). Sarritan etxebizitza nagusi bat gailentzen zen (gela bakarreko etxearen eredia jarraituz antolatua), eta batzuetan, Gasteizen eta Aistran adibidez, 100 metro karratutik gora izaten zituzten.

### 3.2. Gizarte feudala

Azkeneko urteetan funtsezko aldaketak gertatu diren arren, feudalismoaren ikerketa arkeologikoak Euskal Herrian airean dagoen gaia izaten jarraitzen du, neurri batean Erdi Aro Beteko eta Behe Erdi Aroko idatzizko dokumentazioa areagotzeak azterketa arkeologikoak osagarri hutsetara mugatu dituelako. Horregatik agian, herrixka-sarea osatu zenetik industria iraultza arte, honek ia ez duela transformaziorik izan dioen hipotesia zabaldu da. Baina gauzak ez dira hain sinpleak.

#### 3.2.1. Herrixken eraldaketak.

Indusketa zabalak egin dira hainbat tokitan: garai bateko herrixka abandonatuetan -Urraulbeiti (Josue, 1988), Rada (I. Tabar 1995-1996), Zornoztegi, Zaballa (Quirós 2010), Bagoeta (Azkarate *et alii* 2011), lehen biak Nafarroan eta Araban azkenak-, Gasteizko hirigunean (Azkarate, Solaun 2013) eta Bizkaiko nekropoli eta elizetan (García Camino 2002). Indusketa hauei esker, aldaketa sakonak antzeman dira, eta XI. mendetik aurrera herrixken barruan argi ikusten den hierarkizazio sozial nabarmenarekin lotutako botere-adierazle ugari daude. Indusketa horietan dokumentatu dira, besteak beste, lur-kantitate handien lekualdatzeak, aldaketak eraikinen morfologian, (askotan bete beharreko funtzioen arabera: etxebizitzak, labeak, sukaldeak, upategiak eta ukuiluak), etxe-unitateen amortizazioak, elizaren ondoan edo leku zehatzetan populazio-kontzentrazioak eta gotorlekuen eraikitzeak. Datu hauek adierazten dute, herrixka horietan bazeudela aldaketa horiek bultzatzeko adinako agintea zuten jauntxoak.

Era berean, eraldaketak ikusten dira estrategia produktiboetan, jaunen presio handiagoaren ondorioz. Azterketa arkeobotanikoekin ondorioztatzen da, esate baterako, XI. edo XII. mendetik aurrera gariaren ekoizpena areagotu egin zela, eta horrek, soroak etxebizitzaren ondok inguruko lurretara mugitu beharra ekarri zuela. Gari soila, garagarra eta lekadunak ereiteko, batzuetan laborantza-terrazak eraiki ziren, Zornoztegin (Quirós 2009a) eta Gasteizen (Azkarate, Solaun 2013) ikusten den moduan; beste batzuetan lurra euste-hormekin finkatu ziren, Bagoetan egin

zen moduan (Azkarate *et alii* 2011) edo ubideak ireki ziren, Zaballan bezala (Quiros 2012). Herrixka hauetan egindako azterketa arkeozoologikoez erakusten dute ereindako sailak handitzeak larrerako sailak murriztea ekarri zuela eta ondorioz, behi-aziendari ardi eta ahuntzena nagusitu zitzaioela, Gasteizeko (A. Azkarate, J. L. Solaun 2013) eta beste herrixka batzuetako (Zornoztegi, Zaballa) erregistroen arabera (Quiros 2019). Egintza horiek ere jaun-botereen agerpenarekin lotu dira, izan ere, horiek ardi eta ahuntzen hazkuntza bultzatu zuten produktu oso errentagarria zelako eta arreta handirik eskatzen ez zuelako. Badirudi, XI. mendetik aurrera ahuldu egin zela nekazaritza eta abeltzaintza integratzeko joera.

Arabako lautadako herrixketan ardi eta ahuntz-azienden nagusitasunak azalduko luke, beharbada, X. mendetik XII.era mendiko behi-abeltzaintzak eta transhumanztzia bertikalak izandako gorakada (Moraza, Muxika 2005). Kantauri aldean nagusi izaten jarraituko du (Castaños 2016-2017) eta abeltzaintzako ustiapen-modu berezi bat erregistratuko da, saroi izena hartzen duena, hau da, harlauza batez seinalatutako erdiko puntu batetik trazatutako espazio zirkularra. Hauen jatorria ezezaguna denez, batzuen erdiko puntuak induskatu dira eta Behe Inperioko eta Goi Erdi Aroko kronologiak eskaini dituzte (Etxezarraga 2016). Ziur dakiguna da, XIV. mendean, haien jabetza jaun eta elizguneen (adibidez, Zenarruzako kolegiata) eskuetara igaro zela, eta hango errektoreek nekazari-familia zehatz batzuk behartu zituztela espazio horietan ezartzera populaketa sakabanatuko moduei bidea emanaz. Horrek beste errealitate batekin harremanetan jartzen gaitu, sarritan ahazten duguna eta dirudiena baino orokorragoa dena, batez ere Euskal Herriko Kantauri aldean. Hemen, herrixka txiki irekien ondoan, XI. mendetik aurrera familia bakarrek etxebizitza sakabanatuak agertuko dira, parrokia-elizari lotutako multzo irekiak osatuz (Santana 2003).

### 3.2.2. Parrokiak: elizen eta hilerrien eraldaketak.

XII. mendean zehar eliza eta hilerrietako erregistro arkeologikoetan antzematen diren eraldaketak erregeek eta apezpikuek bultzatutako parrokia-sarearen eraketaren ondorio dira. Horrela, badakigu, XI. mendea baino lehen sortutako herrixketako eliza asko albo batera utzi zirela eta gutxi batzuk handitu eta berreraiki egin zirela. Esate baterako, Zenarruzako eliza antzinako tenpluaren gainean berreraiki zen, behin kolegiatak Arta, Gerrika eta Iturreta landa elizak bereganatu ondoren; eta gauza bera gertatu zen Etxebarriako San Agustinen, Mendraka, Argiñeta, Memaia eta Berrioko auzoak bereganatu ondoren (García Camino 2008).

Era berean, mende horretan ikusten da, Araban tenplu berriak sartu zirela herrixketan, eta horiek aldaketa nabarmenak eragin zituztela jendea bizi zen eta landutako espazioen antolaketan. Gasteizen, harresiari itsatsitako leku pribilegiatu batean, IX.

menderako eliza bat eraiki zen bere hilerriaz inguratuta (Azkarate, Solaun 2013); Zornoztegin, eliza eraikitzeak populazioa bere inguruan biltzea eta aurreko populaketa albeolarra alde batera uztea eragin zuen (Quirós 2006). Ikusiko dugu, halaber, elizak, zentro monastikoak edo ostatuak erromaniko estiloan eraikiko direla, bai toki berrietan (Sánchez 2007, Sarasola 2010) bai Done Jakuren bidearen inguruetan (Jusue eta Unzu 2011).

XII. mendean, eraldaketak ikusi ziren hilerrien antolaketan, lurralde botere zibilek eta eliza-botereek bultzatuta. Parrokia-elizetatik hileta-jarduerak kontrolatzen eta homogeneousatzen saiatu ziren, hilerri-kopurua murriztuz, hilerriak trinkotuz, erritualak berdinduz, hilobi batzuk seinaleztatzen zituzten inskripzioak alde batera utziz. Hala adierazi dute ikerketa arkeologikoen Zenarrutzan, Busturian, Etxebarrian, Gorlizan eta Zarautzen (García Camino 2002).

Deigarri gertatzen da hilerri horietan, hildakoaren gorputzean edo eskuetan txanponak jartzeko ohitura berreskuratu zela. Antzinate Berantiarrean zabalkunde handirik ez zuen ohitura greko-latindarra da eta XIII. mendean berriz agertu zen, ziur asko, zirkulazio monetarioa handitzearen eta espiritualitate modu berrien agerpenaren ondorioz (adibidez, garrantzi handia izango zuen Purgatorioa bazenaren sinesmena hedatzeak) (García Camino 2002; Ibañez *et alii* 2009; Martin *et alii* 2019).

Garai hartan ere hasi zen ehorzketak tenpluen barrualdean egiteko joera. Lehenik, aldarearen ondoan edo hormetan irekitako hilobietan atsedena bilatu zuten elizako patrioiek eta elizgizon jakin batzuek (esate baterako Etxebarriako San Agustinen, Iruñeko Katedralean, Gasteizko Santa Marian). Geroago, XIV. mendean, ohitura hori gizarte-geruza guztietara hedatu zen, eta horren adibide ugari daude euskal lurraldeetan: Tuteran, Gasteiz, Bilbo, Astigarribia, Gasteiz (Azkarate 2007)

### 3.2.3. Gazteluak eta dorretxeak.

Elizekin batera gazteluak eta dorreak hartu izan dira, herrixken barruan edo haietatik hurbil, jaunen boterearen baieztapenaren adierazle argienetakotzat. Gazteluak, errege-erreginen eta hauen ordezkarien tresnak izango omen dira, herrixka sareak lurralde zabalagoetan integartzeko (*territoria*, konderriak, “tenentziak”).

Haien morfologiaren datu batzuk ezagunak dira: estrategikoki kokatuta daude herrixkak edo komunikazio-bideak kontrolatzen dituzten muinoetan; egitura bakunak eta eraikuntza aldetik garrantzi txikikoak dira gehienetan; ia arbastatu gabeko inguruko harriz eginak daude eta, sarritan, harkaitzean trakets errotzen diren harlangaitzezko hormez osatuta daude (García Camino 2002).

Zailagoa da betetzen zuten funtzioa zehaztea, eta, gainera, ziburra da haien eraikuntza ez dela beti arrazoi berberen ondorio, ezta kronologia berberen ondorio ere. Induskatutako kronologia gehienek XI. mendetik aurrerako testuinguruetara garamatzate eta, beraz, herrixka-sarea eta espazio feudalak osatuta zeudenean sortu zirela dirudi; baina frogari gehiago behar dira hipotesi hori baieztatzeko. Nafarroako Deio edo Monjardingo San Esteban, Artaxoako harresia eta Azkoiengo talaia bakarrik datatu daitezke gutxienez bi mende lehenago, kristauen eta musulmanen muga-testuinguruan (Ramos 2012); oraingoz ezin izan dugu antzeman sustatzaileak kristauak ala musulmanak izan ziren.

Gainera kontuan izan behar da, batzuetan, Burdin Aroko edo erromatar garaiko antzinako herrixken (Portilla, Irulegi), Goi Erdi Aroko herrixken (Markinezko haitza) edo Goi Erdi Aroko espazio pribilegiatuen (Trebiñuko gaztelua) gainean eraiki zirela; hain zuzen ere, Trebiñuko gazteluaren babesak XI. edo XII. mende inguruan eraiki ziren, silo handien eta boteregune eta nekazaritza-errentak jasotzeko gune goiztiartzat hartu diren erdilurperatutako eraikinen gainean (Quirós eta Tejado 2012).

Hipotesi moduan esaten da, besteak beste populazioa kontzentratu zuen Portillaren moduko salbuespen batzuk izan ezik (Solaun, Azkarate 2016), gazteluek funtzio politikoak, militarrek eta ordezkarietakoak bete zituztela batik batik. Konde edo erregeordeko edo jaunordeko baten egoitza ziren eta barruti bateko administrazio zentroak. Oso bestelakoa Europako eta Penintsulako gazteluekin konparatuz; hauek feudalizazio sozialeko elementuak izan baitziren, non jaunek justizia egiten zuten, nekazariak kontrolatzen zituzten, ekoizpena kontrolatzen zuten eta soberrakinak iristen ziren beren eragin-eremuko biztanleei kobratzen zizkieten errenta arbitrarioetatik. Zentzu horretan, oso esanguratsua da gazteluak bertan behera utzi izana botere politikoek beste kontrol-mekanismo batzuk sortu zituztenean, hala nola hiri-kartz hornitutako hiribilduak edo hiriguneak, edo XII. eta XIV. mendeen artean erregeen autoritatea berresteko eraiki ziren morfologikoki desberdinak ziren beste gaztelu batzuk. Antso VII.ak (Sesma eta García 1993-1994), Teobaldo II.ak (Ramos 2011), Antso VI.ak eta Alfontso X.ak eraikitakoak, esate baterako.

“Mendixka” motako beste egitura gotortu batzuek ere Erdi Aro beteko kronologia dute eta El Cercon (Galdames), Txoritegin (Zerain) eta Galardin (Beasain/Ordizia) dokumentatu dira; bakanak dira Euskal Herrian, nahiz eta oso dokumentatuak izan beste lurralde batzuetan (Frantzia, Alemania ...). XII. edo XIII. mendean eraikitako babes-sistema zakar baten lekuko bakarrak izango lirarteke; lurrezko tumulu handien gainean jarritako egurrezko dorrez osatuak, informazio gehiago behar da testuinguru historiko zehatza eman ahal izateko (Sarasola, Moraza 2011).

Noblezia txikiak ere eraldatu zuen paisaia, ez zegozkion aberastasun-iturriez eta errentez jabetzeko, herrixketatik hurbil, igarobideetan, ibai eta bideen alboan eta bere ondasunen puntu estrategikoetan dorre gotortuak ezarrita; gainera, prozesu hori XIII. mendean hasi zen arren, areagotu egin zen XIV. mendeko krisiaren eraginez. Bestalde, dorreen aztarna materialak kasu gehienetan identifikatu daitezkeen arren (Fontecha dorreak, Nograro, Muñatones, Martiartu...), eraikin horiek eraldaketa-prozesu handia jasan dute, beste eraikin batzuen barruan integratuta geratu baitira; horregatik, zaila izaten da haien materialtasuna identifikatzea, eta hori lortzeko, eraikinen azterketa arkeologiko sakona egin behar izaten da (Sánchez-Pinto, 2016, 2018). Gaur egun bi interpretazio-lerro daude dorreen ikerketari dagokionez: batetik, González Cembellinek (2004) babesten duena daukagu; dokumentazioaren eta oraindik ikusten diren egituren analisisa elkartuz proposatzen dutenaren arabera, zutik dirauten eraikuntza-aztarnen kronologiek oso gutxitan gainditzen dituzte XV. mendeko azken urteak, izaera militarrekoak baino gehiago dira bizileku izaerakoak, eta dorreak ez ziren “moztuak” izan, suntsituak baizik. Beste ikerketa-lerroa Iban Sanchezek (2016) babesten duena da. Ikerlari honek azpimarratzen du, arkeologikoki, eta idatzizko agiriak aztertuz, kontserbatutako dorre asko XIV. mendekoak direla -adibide batzuk XIII. mendekoak izan daitezkeen arren-, eta guk gaur egun ikusten dugun irudia eraikuntza-garapen aberats baten ondorioa dela. Interpretazio-lerro biak abiapuntu ederra osatzen dute ikerketa-bide berrientzat, izan ere, arkeologiara jotzeko beharra azpimarratzen dutenez, haiei buruz etorkizunean egingo diren ikerketentzat erreferentzia izango dira (Azkarate, García-Gómez 2004).

### 3.2.4. Mundu hiritarra.

Hirien sorrera erregeen (edo Bizkaiaren kasuan, jaunen) erabaki baten emaitza moduan azaldu izan da, aurreko populaketaren egiturak sakonki eraldatu zituena, eta arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik foru edo hiri-gutun bat emanez, hainbat lekutan (gehienetan hutsak edo gaizki populatuak) sakabanatuta zegoen populazioa bildu zuena.

Planteamendu horietatik abiatuta, arkeologiaren lehen helburua zera izan zen: XII. eta XIV. mendeen artean sortutako gune horien jatorrizko orubeen dimentsioak definitzen saiatzea edo harresiaren trazadura zehaztea, egungo hiri-planoa Erdi Aroko isla “fossilizatua” dela pentsatzen baitzen. Agian horregatik, eremu horietan indusketa ugari egin badira ere, ezer gutxi aurreratu da. Emaitzak ez daude egindako ahaleginekin lotuta ez baitzegoen ikerketarako programa koherenterik, ezta ere lanak orientatuko zituzten hipotesi eta planteamendurik, eta bere testuinguruetan berreskuratutako materialen azterketarik ere ez (Azkarate, García Camino 1996, Tabar, Garcia, Sesma 2013).

Hala ere, azken urteotan egoera aldatzen ari da. Horrela, gune horietan egindako indusketei esker, gai zabalagoak eta konplexuagoak planteatu ahal izan dira (García Gómez 2017), eta albo batera utzi dira hiri-populaketaren jatorriari eta izaerari buruzko topiko asko.

Jatorriari buruz gaintutu egin da, haietako asko hutsik zeuden lurretan oinplano berriarekin fundatu zirela zioen ikuspegia; izan ere, nahiz eta batzuetan populatu gabeko lekuak izan, inguruak populatuta baitzeuden: Urduña eta Markina Bizkaian, Artziniega Araban eta Urretxu Gipuzkoan. Kasu berezi bat, eta arkeologikoki ongi aztertutakoa, Gesaltza Añanaren eraketa da (Plata 2008).

Beste batzuk herrixka irekien gainean ezarri ziren. Horren testigantza arkeologiko asko ditugu: nekropoliak eta elizak herri berrien parrokiak bilakatuko direnak (Zarautz, Getaria, Uhartea Arakil, Tafalla), bide-azpiegiturak (Balmaseda, Gares), etxola-hondoak (Durango, Guardia), siloak (Agurain), burdina kaltzizatzen labeak (Segura), salgai-biltegiak (Bilbo) eta hiribildu berriak sortu ondoren amortizatu ziren hondakinez betetako zuloak, kubetak eta hobiak (Fernández Carvajal *et alii* 2011).

Beste kasu batzuetan, fundazioak harresiekin gotortutako herrixketan egin ziren edo eremu zabalak kontrolatzen zituzten gazteluetan. Horrela erregistratu da Gasteiz (Azkarate eta Solaun 2013), Argantzón, Labraza, Santikurutze Kanpezu, Guardia (Quirós eta Bengoetxea 2005) eta Artaxoan (Cañada *et alii* 2005).

Inon ezin izan da baieztatu, Iruñean izan ezik, Erdi Aroko hiriguneen eta erromatar garaiko kokaguneen arteko erlazio zuzena. Lekeitio, Zarautz, Getaria, Laudio, Gasteiz, Guardia, Tutereta eta Zangotzan bi garaietako testuinguruak erregistratu diren arren, aldaketa nabarmenak eta etenaldi handiak ikusten dira espazioaren okupazioan V. eta X. mendeen artean (Ibañez *et alii* 2009, Tabar *et alii* 2013 ...).

Dauzkagun datuekin, ia ziurtzat jo daiteke, jatorria zena zela ere, hiriguneek espazioaren berrantolaketa eragin zutela eta horrela, erregeek eta Bizkaiko jaunek aurreko kokaguneen esanahia eta izaera aldatzeko zeukaten borondate argiari erantzun zitzaiola.

Horrela, adibidez, Bilbo berriz eraiki zen 1300ean, inguruko herrixka eta “monasterioetatik” morfologikoki berezita, plangintza eta zuzendaritza behar izan zituen proiektu argi bat jarraituz. Balmaseda, Durango, Segura, Agurain, Santikurutze Kanpezo, Iruñea, Tutereta, Tafalla eta Oliten ere fundazioekin batera hasitako hiritartze-prozesuek aurretiazko egiturak bertan behera utzi zituzten eta ez zieten kasurik egin, berreraiki ziren eliza batzuk salbu.



Herriguneak harresiz mugatuta geratu ziren. Hipotesi zabalduenaren arabera (Ari-zaga 1990, 2006) exentua izan zitezkeen, kare eta harriz eginak, edo hiribilduen perimetroko etheen atzeko hormak elkarri lotuz eratutakoak. Dena den, arkeologiak era askotako egoerak erakusten dizkigu. Harresiak ez ziren beti harrizko eraikin sendoak izan, eta ez ziren eraiki hiriguneak eman ziren unean. Egurrezko egituren hondakinek (Elorrio) (Gil 1997), harresi sendoagoen azpiko garrantzi txikiko hormek (Bilbo), lurlean hondeatutako lubanarroek (Urduña, Elgoibar, Azpeitia, Gasteiz, Gares) eta esparruetarako sarreren alboetako dorreek (Bilbo, Hondarribia, Urizaharra, Gasteiz, Labraza ...) ikertu beharreko egoera aberasgarria agertzen dute (Alcain eta Urteaga 2001).

Izan ere, hiritartzeko lehenengo bulkadaren ostean, hiribilduen garapena iturri idatzien bidez deskribatutakoa baino konplexuagoa izan zen. Izatez, indusketetan antzemandako aldaketa urbanistikoak hain dira nabarmenak, jadanik ez dela onartzen orube gotiko estu eta sakonaren fosilizazioaren topiko zaharra, Bilbo, Durango eta Gasteizen egiaztatu den moduan; horietan fundazioaren garaiko eraikinak ikertu dira, eta zerikusi gutxi dute gaur egun hiribildu horietan ikus dezakegun urbanismo uniforme eta arrazionalarekin (García Camino 1992-1993). Izatez, Erdi Aroan zehar, etxebizitzaren forma eta neurriak eta haien eraikuntzan erabilitako materialak aldatu egin ziren, baita kale eta kantoien ibilbidea ere, eta horrela egiaztatu da Hondarribian, Donostian eta Elorrian (Gil 2004).

Hiribilduetan egindako lehen aldaketetako bat jaun feudalek, baroiek, ahaide nagusiek eta aitoren semeek eragin zituzten, haien barruan ezartzen, gobernuaz jabetuz eta hango biztanleei foruak eskaintzen zizkien abantailez baliatzen. Horretarako, orube batzuk lortu eta beren dorretxeak eraiki zituzten, beren boterea erakusteko eta gainerako auzokoetatik bereizteko (Quirós, Bengoetxea 2005). Gauza bera egin zuten erregeek beren boterea berresteko, besteak beste, Nafarroako Karlos III.ak Tafallan (Armendáriz 2003).

### 3.2.5. Artisautza- eta merkataritza-jarduerak.

Jarduera horiek garrantzi handia izan zuten unibertso feudalaren sare sozioekonomiko konplexuaren barruan, baina hala ere, arkeologiak aldizkako arreta baino ez die eskaini. Ditugun datuak legez behartuta egindako indusketetatik datoz, eta ez ikerketa-programetatik. Beraz, arkeologiak gutxi lagundu du burdinolen, esate baterako, sutegien, karobien, buztinolen eta teilerien ezaugarriak eta garapena zehazten.

Dena den, badirudi azkenaldian joera hori aldatzen ari dela eta adierazpen horiei arreta handiagoa jartzen ari zaiela. (Torrecilla 2004; Solaun 2005; Moraza eta San José 2006, Escribano-Ruiz 2014).

Esanguratsuenen artean aipatu behar ditugu burdinaren metalurgiarekin lotutako zenbait indusketa urbanotan berreskuratutako diren sutegi-labeak (Bilbo, Gasteiz, Gares...), burdinolen lekuko diren haizeolak (Franco 2014; Franco *et alii* 2015; Ugarte eta Urteaga 2014; Azkarate y Solaun 2014); edo burdinola hidraulikoak, Bengolakoa bezelakoa. Azken honek, testuetan 1398tik dokumentatua eta C<sup>14</sup> bidez XIII. mendean azken laurdenean datatua, berrikuntza garrantzitsua jasan zuen XV. mendean bigarren erdian edo XVI.aren hasieran. Datu hauen arabera, ba dirudi uraren erabilpenaren lehen helburua mailua mugitzea zela lingoteak egiteko eta ezpurutasunak kentzeko, eta soilik geroago, labean airea sartzeko eta murrizketa errazteko.

Bestalde, kanpaiak egiteko labeak dokumentatu dira Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Guardia eta Gasteizko hiribilduetan, baina baita eliza eta ermitetan ere, haietako asko obran bertan egin baitziren, eraikitzen ari ziren tenplu baten beharrak asetzeko (Moraza eta San José 2006).

Berriki, XV. mendeko dolareen ardatzaren kontrapisuaren zepoak antzeman dira Balmaseda, Elorrio, Gerrikaitz, Beasain, Durango eta Hondarribian. Azken horri atxikitako testuinguru estratigrafikoetan fruta-haziak jaso ziren, oso ugariak izan zirelarik mahatsarenak.

Gatzaren ustiaketa eta haren garapena arkeologikoki ikertua izan da gure lurraldeetako gatz-iturburu urrietan. Gesaltza Añanak erreferentziatzat balio izan du Brontze Aroan jatorria duten ustiaketa-sistemetan geroztik izandako eraldaketak antzemateko (Plata 2008). Leintz-Gatzagak beste eredu interesgarri bat eskaintzen digu uraren lurrunketa eta gatzaren prezipitazioa errazteko, eguzkiaren argi txikia den guneetan (Urteaga 1993).

Beharbada, azken urteotan gehien aztertu den artisau-jarduera buztingintza izan da, eta horri esker, hurbiltzen ari gara artisauen antolaketa, ekoizpen-eredu, banaketa-modu eta kontsumo-ereduen izaerara (Solaun 2005, Escribano-Ruiz 2014). Analisi diakroniko bat egiteko garai hartako laberik ia ezagutzen ez dugu: Tafallan aurkitu zen bat, XIV. Mendekoa, manganesoz apainduriko kantaroak egiten zituena (Jusue 1980). Baina indusketetan berreskuratutako zeramika-zatien azterketaren bidez zehaztu ahal izan dugu, XIII. mendean ugaritu egin zirela hiri-periferiako lantegiak hiribilduen harresietatik kanpo edo landatar herrixketan kokatuta eta, aldi berean, gutxitu egin zirela aurreko garaiko lantegi sakabanatuak (Solaun 2005). Halaber, egiaztatu da XV. mendean kanpoko ekoizpenak ugaritu egin zirela, merkataritza-trafiko aktibo baten lekuko gisa (Escribano-Ruiz 2014).

Ez dakigu asko itsas merkataritzan erabiltzen ziren itsasontziei buruz eta informazio-eragozpen horri aurre egiteko, gure historiako beste alderdi askotan bezala,

arkeologiara jo behar dugu. Baina gutxi egin da arlo honetan, eta ez daukagu zori-tzarrez itsas hondoaren eta ibai-ahoen karta arkeologikorik.

Hala eta guztiz ere, Europa Atlantikoko piezarik garrantzitsuenetako bat dugu, bai duen antzinatasunagatik (XV. mendekoa baita), bai erakusten dituen eraikuntza-teknikengatik. Urbietan aurkitutako pezioaz ari gara. Pinaza horrek 12 metroko luzera eta 4 metroko zabalera du, Itsasertzeko ontziola batean egindako kaskoa du, hainbat aldiz konponduta. Azken zeharbideetan burdin minerala garraiatu zuen (Izaguirre eta Valdés 1998; Izaguirre 2001).

Aztarna horiek ibilbide ertain edo luzeko merkataritzara apur bat hurbiltzen gaituzte. Baina paradoxikoa dirudien arren, zailagoa da tokiko merkataritzari buruzko informazioa biltzea. Hiri-gutunen eta dokumentazioaren bidez dakigu hiribilduek inguruko herrixken nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena sustatu zutela, bertako biztanleak astean behin egiten ziren hiri-merkatuetara joaten baitziren. Baina ez dakigu nola hornitzen ziren hiriak, zer produktu merkaturatzen ziren edo zer erlazio eta transakzio sortzen ziren landaren eta hiriaren artean. Ildo horretan, fauna-hondakinak eta beste hondakin batzuk aztertzea oso interesgarria izan daiteke hiri-hornikuntzaren estrategiak zehazteko. Horrela, adibidez, Bilboko alde zaharreko fauna aztertzeari esker, badakigu animalia gehienak ia osorik iritsi zirela hiribildura, eta han zatitu egin zituztela (Castaños 1998-1999).

### 3.3. Feudalismoaren kanpoaldean: testigantza islamikoak

Ez da gehien aztertu den gaietako bat. Izatez, duela oso gutxitik ari da argitalpenetan lan-tzen, hein batean ustekabeko aurkikuntza batzuen ondorioz; gure lurralde hauek, Ebro haranekoak izan ezik, aginte musulmanetik kanpo mantendu zirela uste baitzen. Baina ikerketaren egoera nabarmen aldatzen ari da puntu honetan.

Horrela, Aldaietako eta Kondestablearen Etxeko Antzinate Berantiarreko nekropo-lietan karaktere kufikoazko idazkunak dituzten eraztun batzuk aurkitu ziren. Datu horiek zera erakusten dute: nekropoli horietan hilobiratutakoak imitatzen ari direla kultur eredu berriak, 711. urtetik aurrera nagusituz joango direnak.

Askoz esanguratsuagoa izan zen Iruñeko Gaztelu enparantzan hiriko hilerria edo *maqbara* aurkitu izana, antzinako erromatar termen gainean 190 ehorzketa jaso zituena (Faro *et alii* 2007-2008). Zenbait emakumeren ebakortzetan ikusitako aldaketek, Afrika iparraldeko berebereen populazioetan ikusten direnen antzekoak, pentsarazten digute biztanle horietako taldeek osatzen zituztela 711ko konkistaren ostean Iruñan ezarritako garnizio musulmanak (De Miguel-Ibáñez, 2016).

Eta konkistarekin erlazonaturik ere, oinplano zirkularreko dorre batzuk, historiografiak omenaldi dorreekin edo *donjonekin* erlazonatutakoak (besteak beste, Gipuzkoako Ausa eta Nafarroako Orraregi, Garaño, Monreal, Legin, Artaxoa, Arrada, Ablitas eta Aguilarkoak), faroak edo seinale-dorreak izan zitezkeela proposatu da, eta musulmanek haien bidez Toledoko erreinuaren gaineko okupazioa eta kontrola gauzatu zutela (Lecanda *et alii* 2008). Baina Penintsulako beste leku batzuetan baieztatu den hipotesi erakargarri hau ezin izan da Baskonian frogatu, izan ere, aipatutako dorreetan egindako indusketa urrietan ez da VIII. mendeko kronologiarik agertu, ezta mundu islamiarrari egotzi dakioken materialik aurkitu ere.

Konkistan erabilitako mekanismoak edozein izanda ere, egia esan, Erriberan errealtate nabarmena bilakatu zen. Lekukorik esanguratsuenak Tuteran daude, nola ez. Bertan, Andre Maria katedralean eta haren inguruan egindako indusketetan, IX. mendean eraikitako eta XI. ean handitutako meskitaren zimenduak azaldu ziren (Tabar, Sesma 2006). Horrez gain, aztarna gehiago ere identifikatu dira; besteak beste, alkazabaren zimendu-fosak Santa Barbara muinoan, kuxin-formako harlanduz egindako IX. mendeko harresi islamiarraren zati handiak, hiri zaharraren ateetako bat, barbakanaren hondakinak eta etxe-erakinei dagozkien hainbat uharka eta horma; dena den, etxeek ez zuten hartzen medinaren espazio osoa, izan ere harresien barrualdera ere baziren kanalizazio bidez ureztatutako ortuak. Mendebaldeko atearen ondoan hilerria edo *maqbara* aurkitu zen, jatorria IX. mendearen erdialdean duena (Bienes 2007).

Gainera, kalifen garaiko *dirhamak* ere aurkitu dira Arizkoa (Elo) eta Beriaingo nekropoli kristauean, nahiz eta haien esanahia ez dagoen argi, izan ere, kutun gisa erabili ziren; dena den, kristauen eta musulmanen arteko harremanak normalak zirela adieraziko lukete, bai behintzat Ebroko Banukasitarrak Iruñeko jaunen aliatuak izan ziren mendee-tan.

#### 4. ETORKIZUNARI BEGIRA

Erdi Aroko arkeologiaren etorkizun hurbilenaren ezaugarri izan daitezkeen joera batzuk laburki aipatuz amaitu nahi dugu artikulua. Eta esparru tematikoetan, metodologikoetan eta axiologikoetan sartuz egingo dugu.

1. Egia esan, arlo tematikoa nahiko xehatua geratu da aurreko ataletan eta ez dugu gehiegi jardungo horretan. Hala ere salbuespen bat egingo dugu, hainbeste idatzi den “baskoi” etnonimoari buruzkoa. Begirale inpartzial batentzat sinesteko zaila izan arren, baskoi historikoei buruzko historiografian idatzitako milaka eta milaka

orriak, hogeitatu dokumentu eskasetan oinarritzen dira: 11 Hego Euskal Herriari eta 8 *Novempopulaniari* dagozkienak. Kasu gehienetan oso laburrak dira gainera. Hala eta guztiz ere, hamaika historialariren arreta piztu dute betidanik, interpretapen eta berrinterpretapen amaigabeak sortuz (Azkarate 2003).

Arkeologiaren ekarpenak beharrezkoak izan dira korapilo hori behin betiko askatzeko, iturri historikoetako baskoi misterioitsu haiek identifikatu eta espazioan kokatu dituen material-zerrenda ikusgarria eskaini duelako. Guztia Aldaietaren aurkikuntzarekin hasi zen (1987). Gertaera hark mota askotako berritasun ugari jarri zituen abian, benetako kopernikar iraultza bat sortuz Euskal Herriko historiaren atal polemikoenetako baten ezagutzan. Azken urteetan, gertaera garrantzitsu batzuk izan dira, baskoien gaia eztabaida historiografikoaren lehen lerroan jarri dutenak berriz. Bi dira esanguratsuenak.

Lehena, Arabako Dulantzin 2009an eta 2014an egindako ikerketa arkeologikoen erlazionatua dago (Loza, Niso 2016). Aldaietaren antzeko ehorzketak dituen bataio-eliza baten aurkikuntzak dimentsio berri bat eman dio gure ezagutzari. J.J. Larreak Dulantziko San Martin bataio-basilika, Finagako San Martingoarekin (Basauri, Bizkaia) eta Iruñeko katedralean aurkitutako hondakinekin erlazionatu du, elizek eta hilerri-multzoek VI. eta VII. mendeetan baskoien lurraldeetan bizi ziren taldeen artikulazioan izan zuten paperari buruzko proposamen sendoa defendatuz (Larrea 2016).

Bigarrena, M. Pozoren doktore-tesiarekin zerikusia dauka; ikertzaile gazte honek “Baskonia eta baskoiak erromatar Inperioaren krisitik Islama iritsi arte (V.-VIII. mendeak)” hartu zuen gaitzat, J. J. Larrearen zuzendaritzapean egin zuen lana eta 2016ko azaroan defendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Ikerketa horretan proposatzen den kontakizunak aurrerapauso handia suposatu du Pirinioen mendebaldean Antzinate Berantiarrean bizi izandako gertaera historikoak ulertzeko. Aldaieta aurkitu ondoren sortutako testuinguru arkeologikoari dagokionez, beste autore batzuek “baskoien hileta-faciesa” aipatu bazuten ere (Azkarate, García Camino 2013), doktorego-tesi hori izango da Aintzinate Berantiarreko Baskonia historikoa eta “Aldaietako facieseko” nekropoliek zehaztutako espazio geografikoa, errealitatea bat direla proposatuko duen lehena (Pozo 2016, 2018). Mundu guztia ez da ados egongo proposamen horrekin, ziurrenik, eta hurrengo urteetan gai honen inguruan eztabaida emankorrak izango direla pentsatzen dugu.

2. Datozen urteek arkeologiaren ikuspegi berri bat ere ekarriko dute. Artikulu honen hasieran aipatzen genuen aldikako arkeologiak (historiaurrekoa, aro klasikokoa, Erdi Arokoa ...) teoria eboluzionistek eta proposamen historiko-kulturalek menderatutako iraganaren aztarna direla. Eta esaten genuen –aurreko joerak erabat

desagertuko ez diren arren- urte gutxitan historiografia arkeologikoa denbora anitzekoa bilakatuko dela, are denboragabeagoa ere. Arkeologoen ez dute beren burua Paleolitoko, erromatarren garaiko edo Erdi Aroaren ondorengo arkeologiako espezialista gisa ikusiko. Nahiago izango dute genero-gaietan, gatazken arkeologian edo desberdintasun historikoen azterketan interesa duten ikertzaile gisa beraien burua aurkeztu.

Adierazten genuen, baita ere, aurrerapen metodologikoak izugarriak izan direla eta, etorkizuna alde horretatik baikorra zela nahitaez. Baina arrisku larriak ere badaude, eta horiei buruz berehala ohartaraztea komeni da. Hein handi batean, Akademiaren esku dago arkeologia-ekoizpena, unibertsitate eta ikerketa-zentroen eskuetan. Baina Akademia zientziaren kontzepzio izugarri lehiakor eta endogamiko baten kontrolpean dago. Eta ondorioak oso kezkarriak dira, duela gutxi ohartarazi dugun bezala (Azkarate 2017). Ikerketen azken helburua ikerketen argitalpena maximizatzea da: argitaratu ala hil (*publish or perish*). Ikertzaileek ez dute zalantzarik izango batzuek (Binswanger 2914) *salami tactics* gisa kalifikatu dutena aplikatzeko, hau da, ikerketaren emaitzak salamiaren gisako xerra finetan ebakitzea eta ugaritzea. Argitalpen kopurua biderkatzeko teknika horrek aldizkari zientifikoaren hiperinflazioa eragin du azkenean, bertan milioika paper iraultzen direlarik. Gure diziplinaren esparruan, azterketa arkeometrikoak egiteko aukera ikaragarriek argitalpen ugari egitea ahalbidetzen dute, askotan kasuak eta adibideak aldatuta bakarrik. Sarritan emaitza batzuk argitaratzen dira ikerketak amaitu gabe egon arren, datuak urriak, behin-behinekoak eta sendotasun gutxiak izan arren. Jakina, monografiak eta liburuak albo batera uzten dira, puntu gutxiago eta lan gehiago ematen dutelako inpaktu-indize neurgarriak dituzten artikuluen aldean.

Guzti horren ondorioak kezkarriak dira: argitalpen arkeologikoen gehiago jartzten dute arreta itxurazko ondorio borobiletan, horretarako erabili behar izan diren argudioetan baino. Badirudi arkeologia mota bat nagusitzen ari dela: gizarteari aurkezten dion kontakizun historikoaz jabetzeko behar izan dituen lan-prozedurak eta erregistro-sistemak zehatz-mehatz adierazteko beharrik sentitzen ez duena. Sarritan, ba dirudi azken emaitzak aurreko “interpretazio-ereduetara” makurtzen direla (Azkarate, García Camino 2012: 348).

3. Hala ere, dena ez da kezkarria. Beren burbuila akademikoaren barruan dauden arkeologoen aurrean, ezagutzaren sozializazioaren aldeko konpromisoa areagotzen ari da. Gure diziplinari dagokionez, haxe da “Public archaeology” izenaz ezagutzen dena (Faulkner 2000). Esan beharra dago, hala ere, arkeologia publikoa ez dela gaur egungo mendekoa, batzuetan uste den bezala. STS (Science, Technology and Society) azterlanak joan den mendeko 70eko hamarkadatik garatzen

ari dira. STS pentsamendua, mugimendu heterogeneo eta diziplinarreko bat da, etika eta justizia balio epistemiko hutsen gainetik aldarrikatzen dituen, eta parte-hartze publikoa eredu bezala defendatzen duena. Gasteizko Katedral Zaharreko esperientzia STS espiritu honetan oinarritu zen (Azkarate 2011) eta, Erdi Aroko arkeologiatik abiatuz, esperientzia aitzindari bihurtu zen Estatuan. “Abierta por obras/Open for Works/Obretan eta Irekia” eslogana -nazioartean eragina izan duena- ez zen publizitate egokia soilik izan, baizik eta, batez ere, ikerketa zientifikoaren erantzukizun sozialari buruzko printzipioen adierazpena.

## 5. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

**ARKEOIKUSKA** <sup>1</sup> (1982-2009). Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco.

**AA.VV.**

(1992) Jornadas Internacionales de Arqueología de Intervención, Gobierno Vasco, Bilbao

**ALCAIN SORONDO, P.; URTEAGA ARTIGAS, M.**

(2001) “La muralla medieval de Hondarribia y las fortificaciones de las villas de realengo guipuzcoanas” *V Congreso de Arqueología Medieval Española*, Valladolid: 743-758.

**ARIZAGA BOLUMBURU, B.**

(1990) *Urbanística medieval. Guipuzcoa*. San Sebastian.

**ARIZAGA BOLUMBURU, B.; MARTINEZ MARTINEZ, S.**

(2006) *Atlas de las villas medievales de Vasconia. Bizkaia*. BBK. Eusko Ikaskuntza. Bilbao.

**ARMENDARIZ AZNAR, R.M.**

(2003) «Tafalla» *Panorama* 32

**AZKARATE GARAI-OLAUN, A.**

(1993) “Francos, aquitanos y vascones: testimonios arqueológicos al sur de los Pirineo”, *Archivo Español de Arqueología*, 66, pp. 149-176

(1995) “Aportaciones al debate sobre la arquitectura prerrománica peninsular (San Román de Tobillas, Álava)”, *Archivo Español de Arqueología* 68, pp. 189-214.

(1996) “Algunos ejemplos de análisis estratigráfico en la arquitectura del País Vasco”. C. Escribano Velasco, L. Caballero Zoreda, *Arqueología de la Arquitectura: el método*

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Arkeoikuska* (1982-2019) aldizkarian, EAEn urtero egiten diren eta artikulu honetan aipatzen diren indusketa guztien behin-behineko emaitzak jasotzen dira.

*arqueológico aplicado al proceso de estudio y de intervención en edificios históricos*, Valladolid, pp. 123-140.

- (1999) *Necrópolis tardoantigua de Aldaieta (Nanclares de Ganboa, Alava)*. Vol. I. *Memoria de la excavación e inventario de los hallazgos*. Memorias de yacimientos alaveses, nº 6. Vitoria.
- (2001) Análisis de la evolución histórico-constructiva de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz (Aplicación de la “Arqueología de la Arquitectura” a un modelo complejo), *V Congreso de Arqueología Medieval Española*, Junta de Castilla y León, Valladolid, pp. 177-211.
- (2007) “La muerte en la Edad Media”, *La tierra te sea leve. Arqueología de la muerte en Navarra*: 177-194.
- (2011) “Repensando los márgenes circumpirenaico-occidentales durante los siglos VI y VII d.C.” en E. Baquedano, *711 Arqueología e Historia entre dos mundos (Zona Arqueológica nº 15)*, Alcalá de Henares: Museo Arqueológico Nacional, pp. 241-256.
- (2017) “Por una arqueología no tan “excelente”, en Almansa, J., *El futuro de la arqueología en España*, JAS Arqueología Editoria, Madrid, pp. 7-12.

**AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; GARCIA CAMINO, I.**

- (1996) “*Estelas e Inscripciones medievales del País Vasco (siglos VI-XI)*. I. País Vasco Occidental”. Universidad del País Vasco. Gobierno Vasco.
- (1996b) “La ciudad, documento histórico: Reflexiones sobre la práctica de la arqueología urbana en la Comunidad Autónoma Vasca”, *Kobie. Paleoantropología, Kobie. Paleoantropología XXIII*, pp. 141- 161.
- (2012) “El espacio circumpirenaico durante los siglos VI al X d.C. según el registro arqueológico; algunos interrogantes, en L. Caballero, P. Mateos, C. García de Castro (eds.), *Asturias entre visigodos y mozárabes*, Madrid, CSIC, pp. 331-352.
- (2013) *Baskonia, bitarteko lurra, Hileta-errituak mugan / Vasconia, tierra intermedia. Ritos funerarios de frontera*, Arkeologi Museoa (Bilbao) – Museo Bibat (Vitoria).

**AZKARATE GARAI-OLAUN, A., GARCIA GÓMEZ, I.**

- (2004) “Las casas-torres bajomedievales. Análisis sistémico de un proceso de reestructuración espacial/territorial”, *Arqueología de la Arquitectura*, 3, pp. 7-37.

**AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; MARTINEZ TORRECILLA, J.M.; SOLAUN BUSTINZA, J.L.**

- (2011) “Metalurgia y hábitat en el País Vasco de época medieval: el asentamiento ferrón de Bagoeta (Alava)” (siglos VII-XIV d.C.). *Arqueología y territorio medieval*. Universidad de Jaén: 72-89



**AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; SOLAUN BUSTINZA, J. L.**

(2013) *Arqueología e Historia de una ciudad. Los orígenes de Vitoria-Gasteiz*. Colección Patrimonio, Territorio y Paisaje. UPV/EHU. 2 tomos.

(2014) De ferro en Alava. Metalurgia altomedieval en la Llanada alavesa (siglos VII-XI d.C.), *Kobie Serie Anejo*, nº 13: 151-168

**BINSWANGER, M.**

(2014) "Excellence by Nonsense: The Competition for Publications in modern Science", S. Bartling and S. Friesike (eds.), *Opening Science. The Evolving Guide on How the Internet is Changing Research, Collaboration and Scholarly Publishing*, Berlin: Springer Open, pp. 49-72. 4 DOI: 10.1007/978-3-319-00026-8\_3,

**CAÑADA PALACIO, F. FARO CARBALLA, J.A.; UNZU URMENETA, M.**

(2005) "El cerco de Artajona. Estudio histórico-arqueológico". *Trabajos de arqueología de Navarar*, 18: 175-300.

**CEPEDA OCAMPO, J.J.**

(2019) "Dos iglesias tardoantiguas en el norte de Hispania. San Martín de Finaga (Bizkaia) y Buradón (Álava)", en *Congrés Internacional d'Arqueologia i Món Antic VII Reunió d'Arqueologia Cristiana Hispànica Tarragona*: 243-250

**DE MIGUEL IBÁÑEZ, M.P.,**

(2016) *La maqbara de Pamplona (s.VIII). Aportes de la osteoarqueología al conocimiento de la islamización en la marca superior*, Universidad de Alicante, Alicante.

**ETXEZARRAGA ORTUONDO, I**

(2016) *Seles de Gipuzkoa (Pasaia, Parzonería General de Gipuzkoa y Álava, Urnieta)*

**ESCRIBANO RUIZ, S.**

(2014) *Genealogía del registro cerámico alavés de época preindustrial (siglos XIV al XVII)*, Tesis Doctoral, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <http://hdl.handle.net/10810/2290>

**FARO CARBALLA, J.A., UNZU URMENETA, M.**

(2007) «Necrópolis de la Casa del Condestable (Pamplona)», *La tierra te sea leve: arqueología de la muerte en Navarra*. Pamplona, pp. 209-212

**FAULKNER, N.**

(2000) "Archaeology from below". *Public Archaeology*, 1(1), 21-33

**FRANCO PEREZ, J.**

(2014) *I Coloquio de Arqueología experimental del hierro y paleosiderurgia. Kobie, anejo 13.*

**FRANCO PEREZ, J.; ETXEZARRAGA ORTUONDO, I.; ALBERDI LONBIDE, X.**

(2015) "Los orígenes de la tecnología del hierro en el País Vasco: Ferrerías de monte *Kobie. Serie Paleoantropología*, 34, 267-282.

**FERNANDEZ CAVAJAL, J.A.; ELORZA GONZALEZ DE ALAIZA, L.; GRAU SOLOGESTOA, I.**

(2011) "Intervención arqueológica en la antigua cárcel de Balmaseda resultados y análisis de los materiales" *Revista Arkeogazte* Nº1: 167-185.

**GARCIA CAMINO, I.**

(1992/93) "Urbanismo y cultura material en el Bilbao medieval", *Kobie. Paleoantropología*, 20, pp. 235-266.

(2002) "Los orígenes de la iglesia de Santiago en Bilbao", *La catedral de Santiago de Bilbao*. Bilbao:61-80.

(2002) "Arqueología y poblamiento en Bizkaia, Siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal". Diputación Foral de Bizkaia.

(2008) "Bolibar en la Edad Media. El antiguo solar del libertador". *Cuadernos del Museo Simon Bolibar* nº 2. 9-36.

(2013) "Arqueología Medieval en la comunidad autónoma del País Vasco (1985-2010)". Boletín de Arqueología Medieval, nº 17: 199-278.

**GARCÍA CAMINO, I.; GONZÁLEZ CEMPELLIN, J. M.; SANTANA EZQUERRA, A.**

(1987) "La arquitectura prerrománica vizcaína", *Kobie Bellas Artes* 4, pp. 7-37.

**GARCIA DE CORTAZAR RUIZ DE AGUIRRE, J.A. et alii**

(1979) *Introducción a la Historia medieval de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*. Txertoa.

(1985) *Bizcaya en la Edad media*. 4 vol. Diputación Foral de Bizkaia.

**GARCÍA GOMEZ, I.**

(2017) *Vitoria-Gasteiz y su hinterland. Evolución de un sistema urbano entre los siglos XI y XV*, Colección Patrimonio, Territorio y Paisaje, 2, Universidad del País Vasco, Vitoria-Gasteiz

**GIL ABAD, D.**

(1997) *Elorrio, Urbanismo medieval de la Villa*. Gobierno vasco, Ayuntamiento de Elorrio.

(2004) "Estudios realizados sobre zonas arqueológicas de cascos históricos". *Kobie, Anejos* 6, vol. 2, pp. 559-574.

**GONZALEZ CEMPELLIN, J. M.**

(2004) *Torres de las Encartaciones*, Bizkaiko Foru Aldundia/ Diputación Foral de Bizkaia. Bilbao.

**GONZÁLEZ RUIBAL, A.**

(2012) "Hacia otra arqueología: diez propuestas", *Complutum*, Vol. 23 (2): 103-116

(2013) *Reclaiming Archaeology. Beyond the Tropes of Modernity*, Routledge, Londres.

**GRASSI, F., QUIRÓS CASTILLO, J.A.,**

(2018) *Arqueometría de los materiales cerámicos de época medieval en España, Universidad del País Vasco, Bilbao.*

**GRAUSOLOGESTOA, I.**

(2009) "Ganadería en la Alta Edad Media. Estudio comparativo de los yacimientos alaveses de Zornoztegi, Zaballa y Salvatierra-Agurain", *Munibe, antropología-Arqueología*, nº 60: 253-280

**HAMILAKIS, Y.**

(2011) "Archaeological ethnography: A multi-temporal meeting ground for archaeology and anthropology". *Annual Review of Anthropology*, 40: 399-414

**IBAÑEZ ETXEBERRIA, A. et alii**

(2009) "Santa María la Real de Zarautz (País Vasco) continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a.C. y XIV d.C.". *Munibe Suplemento-Gehigarria*, 27.

**IZAGUIRRE LACOSTE, M.**

(2001) "State of the excavation works of the 15th century shipwreck in Urbieta". *Proceedings International Symposium on Archaeology of Medieval and Modern Ships of Iberian-Atlantic tradition. Trabalhos de Arqueologia*, 18: 449-454

**IZAGUIRRE LACOSTE, M.; VALDES GARCIA, L.**

(1998) "Avance de excavación del pecio del siglo XV de Urbieta (Gernika)", *Itsas Memoria* 2, pp. 35-41.

**JUSUE SIMONENA, C.**

(1988) *Poblamiento rural en Navarra en la Edad Media. Bases arqueológicas*. Gobierno de Navarra- Departamento de Educación y Cultura-Institución Príncipe de Viana.

**JUSUE SIMONENA, C.; UNZU URMENETA, M.**

(2011) "Hospitalidad y muerte en la ruta jacobea navarra. Evidencias arqueológicas e históricas". *Cuadernos de la Catedra de Patrimonio y Arte Navarro*, 5, *El Camino de Santiago y las raíces de Occidente*.

**LARREA CONDE, J.J.**

(2016) "Las iglesias de los vascones: una problemática antigua y un registro arqueológico nuevo (siglos VI y VII), Anejos de NAILOS, nº 3, pp. 221-248

**LOZA URIATE, M., NISO LORENZO, J.**

(2011) Resultados preliminares de la intervención arqueológica de San Martín de Dulantzi (Alegria-Dulantzi, Álava), en J.A. QUIRÓS (ed.), *Vasconia en la Alta Edad Media 450-1000, poderes y comunidades rurales en el Norte Peninsular*, Bilbao, 235-246.

(2016) “La basílica tardoantigua de San Martín de Dulantzi (Alegría-Dulantzi, Álava)”, *Pyrenae* 47: 2, 95-129.

**LLANOS ORTIZ DE LANDALUZE, A.**

(1976) “Necrópolis altomedievales en la zona occidental de la Rioja Alavesa, 1982”, *Noticiario Arqueológico Hispánico* 4, pp. 645-668.

**MARTIN, M.**

(1976) *Das fränkische Gräberfeld von Basel-Bernerring*. Archäolog. Verl. Basel

**MARTIN-ESCUADERO, F.; GRAÑEDA MIÑON, P.; CAMPOS LOPEZ, T.**

(2019) “Monedas en el Más Acá y en el Más Allá en el Norte peninsular: el caso de Gorliz” *Escritura y sociedad : burgueses, artesanos y campesinos*. 313-337

**MESANZA MORAZA, A.; GARCIA GOMEZ, I.; AZKARATE GARAI-OLAUN, A.**

(2020) “Del edificio al paisaje, una panorámica metodológica de la arqueología de la arquitectura en el banco de pruebas de Vitoria-Gasteiz, País Vasco” en A. Azkarate (ed.) *Arqueología de la arquitectura en latinoamerica, una fusión de tendencias Arqueología de la Arquitectura*, n.º 17.

**MORAZA BAREA, A.; MUJIKALUSTIZA, J. A.**

(2005) “Establecimientos de habitación al aire libre. Los fondos de cabaña de morfología tumular: características, proceso de formación y cronología”. *Veleia* nº 22: 77-110.

**MORAZA BAREA, A.; SAN JOSE SANTAMARTA, S.**

(2006) “La producción de campanas en la Península Ibérica en época medieval y moderna. Contexto arqueológico de una actividad metalúrgica protoindustrial”. *III Simposio sobre mineração e metalurgia históricas no Sudoeste europeu*, Porto: 329-349.

**PLATAMONTERO, A.**

(2008) “Erdi Aroko hiri baten sorrera. Gatz haraneko arkeologia, paisaia eta arkitektura (Araba) / Genesis de una villa medieval. Arqueología y arquitectura del valle salado de Añana (Alava)”, EKOB4. UPV/EHU. Eusko Jaurlaritzia.

**POZO FLORES, M.**

(2016) *Vasconia y los vascones de la crisis del Imperio romano a la llegada del islam (siglo v-viii)*. Evolución sociopolítica y génesis de la gens *effera*, Tesis Doctoral inédita, Vitoria.

(2018) “Vascones y wascones. Las relaciones entre las dos vertientes de los Pirineos occidentales según las fuentes escritas y los testimonios arqueológicos (siglos VI-VIII)”, *Les frontières Pyrénéennes au Moyen Âge (Vie-XVe siècles)*, Gasc S., Sénac O, Venco, C, Laliena C. (eds), Prensas de la Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 25-65.

**QUIRÓS CASTILLO, J. A.**

- (2006) “La génesis del paisaje medieval en Álava: la formación de la red aldeana”, *Arqueología y Territorio Medieval* 13.1: 49-94.
- (2009) Arqueología del campesinado altomedieval: Las aldeas y las granjas del País Vasco. *The archaeology of Early Medieval villages in Europe*. Universidad del País Vasco: 385-403.
- (2009a) Arqueología de los espacios agrarios medievales en el País Vasco. *HISPANIA. Revista Española de Historia*, vol. LXIX, nº 233, pp. 619-652.
- (2010) “La arqueología de las aldeas en el noroeste peninsular. Comunidades campesinas y poderes territoriales en los siglos V –X”. *Monasterios, espacio y sociedad en la España cristiana medieval. XX semana de estudios medievales. Najera*, pp. 225-256
- (2011) “Early medieval landscapes in north-west Spain: local powers and communities, fifth-tenth centuries”. *Early Medieval Europe* 3, 285-311
- (2012) *Arqueología del campesinado medieval. La aldea de de Zaballa. Documentos de arqueología medieval*, 3. UPV/EHU.
- (2019) *Arqueología de una comunidad campesina medieval, Zornoztegi (Alava)*, Universidad del País Vasco-euskal herriko Unibertsitatea, Bilbao.

**QUIRÓS CASTILLO, J. A.; BENGOTXEA REMENTERIA, B.**

- (2005) “Las villas vascas antes de las villas vascas. La perspectiva arqueológica sobre la génesis de las villas en el País Vasco”. B. Arizaga (ed.) *El espacio urbano en la Europa medieval*, Najera, pp. 147-165.

**QUIRÓS CASTILLO, J. A., RICCI, J. A., LUBRITTO, C.**

- (2012) “Paleodieta e società rurali altomedievali dei Paesi Baschi alla luce dei marcatori isotopici di C e N”, *Archeologia Medievale* XXXIX: 87-92

**QUIROS CASTILLO, J. A., TEJADO SEBASTIAN, J. M.**

- (2012) *Los castillos altomedievales en el Noroeste de la Península Ibérica. Documentos de arqueología medieval*, 4. UPV/EHU

**RAMOS AGUIRRE, M.**

- (2011) “Arqueología de los espacios rurales altomedievales en Navarra (450-1000)”. *Vasconia en la Alta Edad Media 450-1000. Poderes y comunidades rurales en el Norte peninsular. Documentos de arqueología medieval*, 2. UPV/EHU: 119-131.
- (2012) “Los castillos altomedievales de Navarra (450-1000). *Los castillos altomedievales en el Noroeste de la Península Ibérica. Documentos de arqueología medieval*, 4. UPV/EHU: 145-162.

**SÁNCHEZ PINTO, I.**

(2016) Arqueología bajomedieval en Álava: Análisis histórico-constructivo de las torres banderizas. Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz.

**SÁNCHEZ ZUFIARRE, L.**

(2007) “Técnicas constructivas medievales. Nuevos documentos para el estudio de la Alta Edad Media en Álava”,

**SANCHEZ RINCON, R.; VALLO ESPINOSA D., UNZUETA PORTILLA, M.**

(2007-12) “Necrópolis en el entorno de la ermita de San Mames (Kortzeubi)”, *Arkeoi-kuska*07/08/09/10/11/12. Vitoria Gasteiz.

**SANTANA EZQUERRA, A.**

(2003) “Historia del caserío de Igartubeiti”, *Igartubeiti. Gipuzkoako baserri bat. Un caserío guipuzcoano*, Donostia. Vitoria-Gasteiz.

**SARASOLA ETXEGOIEN, N.**

(2010) “El poblamiento medieval en Gipuzkoa. Revisión crítica del registro arqueológico”. *Munibe, Antropología-Arkeologia*, 61. San Sebastian, pp. 339-393

**SARASOLA ETXEGOIEN, N.; MORAZA BAREA, A.**

(2011) *Arqueología Medieval en Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia /Diputación Foral de Gipuzkoa.

**SOLAUN BUSTINZA, J. L.**

(2005) “La cerámica medieval en el País Vasco (siglos VIII-XIII). Sistematización, evolución y distribución de la producción”, Vitoria-Gasteiz.

**SOLAUN BUSTINZA, J.L., AZKARATE GARAI-OLAUN, A.**

(2016) “El castillo de Portilla (Zambrana, Alava). Origen y significado de una fortaleza plenomedieval en territorio alavés (siglos XI-XII)”, *Munibe Antropología-Arkeologia*, 67: 167-183

**SESMA SESMA, J.; GARCIA GARCIA, M.L.**

(1993-1994) “Monte Aguilar (Bardenas Reales de Navarra). *Trabajos de arqueología de Navarra*, 11: 276-280

**TABAR SARRIAS, I.**

(1995-96) “Intervenciones arqueológicas en el Desolado de Rada 1994-95”. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 11: 338-342.

**TABAR SARRIAS, I.; GARCIA GARCIA, M.L.; SESMA SESMA, J.**

(2013) “Los últimos 25 años de arqueología medieval en Navarra”. *Boletín de Arqueología Medieval*, nº 17, pp 159-198

**TORRECILLA GORBEA, M.J.**

(2004) "Las ferrerías del Cantábrico Oriental: Perspectivas arqueológicas. *Kobie. Anejo 6. Homenaje a J.M. Apellaniz*, pp. 715-726

**UGARTE, J.L. y URTEAGA ARTIGAS, M.**

(2014) *Erdi aroko burdin arkeologia. Legazpi (Gipuzkoa). Barrutiko zepadiak / Arqueología del hierro medieval. Los escoriales del distrito de Legazpi (Gipuzkoa)*. Fundación Arkeolan.

**URTEAGA ARTIGAS, M.**

(1993) "La industria de la sal en el desarrollo de la villa de Leintz-Gatzaga (Salinas de Leniz) Gipuzkoa". *IV CAME*, tomo III. Alicante: 937-944.

**URTEAGA ARTIGAS, M. et alii**

(1989) *Curso de formación de jóvenes en arqueología Urbana*. Diputación Foral de Gipuzkoa.

**URTEAGA ARTIGAS, M.; AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; GARCIA CAMINO, I.**

(1986) "Arqueología medieval en el País Vasco. Estado actual en las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya", *I Congreso de Arqueología Medieval Española. I. Zaragoza: 131-144*.

**WICKHAM, C.**

(2008) *Una Historia nueva de la Alta Edad Media. Europa y el mundo mediterráneo*. 400-800. Ed. Crítica.